

# Landa-turismoa



Irakurri arreta handiz hurrengo taulako datuak. Euskal AEko turismo sektorearen egoera aztertzeko balio duten aldagai batzuk nola aldatu diren adierazten dute.

| Euskal AE | 2003 | 2004 | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Establezimendu kopurua direktorioan | 249 | 275 | 280 | 303 | 323 | 356 |
| Plaza kopurua establezimendu irekietan, inkestaren arabera | 833.318 | 898.440 | 954.207 | 1.073.927 | 1.201.757 | 1.240.724 |
| Logela kopurua establezimenduetan, inkestaren arabera | 416.366 | 447.452 | 468.962 | 504.391 | 564.905 | 611.375 |
| Langileria | 329 | 345 | 328 | 333 | 364 | 391 |

❖ Ariketa honetan, txosten bat egin beharko duzu, landa-turismoaren egoerari buruz eta turismo mota horrek 5 urte hauetan izan duen bilakaerari buruz. Lehen-lehenik, txostenaren gidoia egin behar duzu. Horretarako, honako hau egitea iradokitzen dizugu:

- Beste aldagai bat zehaztea: Esate baterako, plaza kopuruaren eta establezimendu kopuruaren arteko banaketak establezimenduen tamainari buruzko informazioa eman diezaguke aldagai horrek. Ea besteren bat bururatzen zaizun.
- Zehaztu zer aldagai aztertuko dituzun.
- Zehaztu zer eratako grafikoak erabiliko dituzun (baten bat erabiltzea erabakitzen baduzu)
- Zehaztu zer parametro kalkulatuko dituzun hautatu dituzun aldagaietan.

Erabaki horiek guztiak hartuta, lanean hasteko moduan zara.

Datuak dauzkazunean, txostena idazten has zaitezke.

**Txostena: Euskal AEko landa-turismoaren egoera eta eboluzioa, 2003tik 2008ra**

Egileen izena:.....
Data:.....
Aurkibidea:.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....